

ELKAR ZAINDUZ, ZAINZA ESKUBIDE KOLEKTIBORANTZ

Gaur egun zaintza lanak antolatzeke dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen. Egun, sistemak ez du gaitasunik biztanleriaren geruza askoren ongizatea bermatzeko eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zaintzak beste era batera eratzen ez baditugu behintzat. Horregatik mintzo gara zaintza krisiaz.

Egungo zaintza erregimena bidegabea da eta zaintza etika atzerakoia bultzatzen du. Desfamiliarizazio prozesua bizitzen ari garen arren, oraindik orain familiak eta horien barruan emakumeak dira zaintza lanetan arduradun nagusi; hots, zaintzak hiperfeminizatuta daude. Gainera, zerbitzu publikoak gutxitzen eta privatizatzen ari dira, eta gizonek zaintzeko ardura ez dute hartzen. Horregatik, etxeko langileen kontratazioa da nagusitu den desfamiliarizazio estrategia orokorra, oso egoera kaxkarretan: bazterketa bultzatzen duen egoera guztiz prekarizatua daude emakume migratu eta arrazializatuak.

Horregatik zaintza lanak demokratizazio prozesuan jarri behar dira. Horretarako, zaintza lanak aitortu behar dira, eta lanen izaera, dimentsioak eta tokian toki betetzen dituzten funtzioak ikustarazi behar dira. Gizartean, orohar, eta, zehazki, ekonomian egiten duten ekarpena kontuan hartu behar da. Ondorioz, bizitza sozialeko eremu guztietan betetzen duen funtzioa onartu behar da. Garrantzitsua da ekarpena egiten duten horiek lehen lerroa ekartzea; hots, emakumeak eta horien barnean klase baxuko emakumeak eta migratutakoak.

Gaur egungo egoera aztertu, eta zaintza lanak demokratizazio bidean jartzeko estrategiak zein diren landuko dugu saioetan edo hitzaldian.

HITZALDIA

Pare bat ordutako saioa izango litzateke. Lehen orduan hizlariak Euskal Herriko zaintza erregimenaren gaineko hausnarketa egiteko gakoak eskainiko ditu eta horren aurrean mugimendu feministan zaintza sistema publiko komunitario bat eraikitzeke eztatanda nagusiak plazaratuko ditu.

Horren ondoren zenbait galderen baitan hausnartzen jarraituko dugu: Zer dira zaintza lanak? Nola bermatu zaintza eskubide kolektiboa? Zer da sistema publiko komunitarioa? Zein da administrazio publikoaren papera? Zein izan beharko luke? Zer egin dezakegu gure udalerrian?

LAN SAIOAK

Zaintza lanen eremuan gehiago sakontzeko tartea eskainiko genuke bigarren aukera honekin. Proposatzen duguna da 2 saio egitea 3 ordukoak bakoitza, baina erabat moldagarria da beharren eta aukeren arabera.

Lehen saio batean zaintza lanen genealogia osatuko genuke 1950etik gaurdaino zaintza lanak Euskal Herrian nola aldatu diren ikusteko. Horrez gain, gaur egungo egoeraren inguruko hausnarketa kolektiboa egingo genuke dinamika parte hartzaileen bidez.

Bigarren saioan gure egunerokoa zaintza lanek duten presentzia hausnartuko genuke, eta zaintza eskubide kolektiboa bermatzeko zein aldaketa ebhar ditugun identifikatzeko ariketak egingo genituzke.